

# BESTELAKO XEDAPENAK

## OSASUN SAILA

### 4513

*AGINDUA, 2022ko urriaren 4koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita Bioef Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Eusko Fundazioaren Alzheimeraren arloko ikerketa-proiektueta-rako laguntzen deialdia.*

Aurreko urteetan bezala, 2021eko Eitb maratoia ekimenak, zeinetan hainbat motatako elkarte eta erakundek aktiboki parte hartu duten, bai eta norbanako askok ere, diru-kopuru handia biltzea lortu du ikerketa biomedikoaren alde; oraingoan, Alzheimerri buruz. Euskal Irrati Telebistaren eta Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Eusko Fundazioaren artean lankidetzeta-hitzarmenean ezarritakoaren arabera, 2021eko urriaren 13an sinatu zen Eitb Maratoia erdiesteko, ekimen solidario horren bidez bildutako funtsak Alzheimerren eta beste demenzia batzuen gaineko ikerketa bultzatzeko laguntzen deialdi honetara bideratuko dira, ikerketa-proiektuak finantzatu, ezagutza areagotu eta demenzien azterketan aurrera egiteko.

Bioef – Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Eusko Fundazioa Osasun Sailak sortutako tresna da, EAEko sistema sanitarioan berrikuntza eta ikerketa sustatzeko. Fundazioa, halaber, ikerkuntza eta berrikuntza sanitarioan diharduten sektoreen arteko erkidego-, estatu-, nazioarte-mailako elkarlan, lankidetzeta eta komunikazio-esparru bat da. Gainera, programa eta politika sanitarioak eta sektoreartekoak funtsatzen laguntzen du Bioefek, sistema sanitarioak kalitate eta lehiakortasun handiagoa izan dezan, eta Euskal Autonomia Erkidegoan aberastasuna eta garapen sozioekonomikoa sortzen laguntzeko. Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen martxoaren 23ko 116/2021 Dekretuari jarraikiz, Bioef sail horri atxikitako sektore publikoko fundazio bat da, eta Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzari laguntzen dio Zuzendaritza horri dagozkion funtzioetan.

Esparru horretan, Osasun Sailak 2021-2024 aldirako esparru estrategiko berri bat ezarri du, osasun-politikak barne hartuta, EAEko osasun-sistema publikoa, kalitatezkoa, unibertsala eta bikaina sendotzeko; Lehen Mailako Arreta bultzatu eta indartzearen alde egiten du; osasun publikoaren sistema sustatu eta sendotzearen alde; koordinazio soziosanitarioaren bidez pertsonen bizi-kalitatea hobetzearen alde, eta osasunaren arloko berezko ikerketa- eta berrikuntza-ekosistema garatzen jarraitzearen alde. Bertan, ildo estrategiko bat eratzen da osasun-arloko ikerketa eta berrikuntzan, Jaurlaritzaren helburu nagusia lortu ahal izateko: Euskal Autonomia Erkidegoko sistema sanitario publiko, unibertsal, jasangarri eta kalitatezkoari eusteko. Agindu hau esparru estrategiko horretako elementu instrumentalei lotuta dago, bereziki I+G+B sanitarioari buruzkoari.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 8. artikuluan ezarritakoarekin, agindu honetan aurreikusitako dirulaguntzak ematea aldeaz aurretik sartzen da Osasun sailburuaren 2022ko otsailaren 22ko Aginduan, zeinaren bidez onartzen baita Osasun Sailaren 2022ko ekitaldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, Berrikuntza eta Ikerketa Sanitarioko Euskal Fundazioari buruzkoetan. Agindu hori Osasun Sailaren egoitza elektronikoa dago argitaratuta.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren hamaseigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betez (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak aldatu zuen xedapen hori), sektore publikoko fundazioek dirulaguntzak eman ahal izango dituzte, baldin eta atxikita dauden administrazio-organoaren baimena badute.

Deialdiaren zuzkidurari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko 2022. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 11/2021 Legean jasotakoaren arabera, eta horren barruan, Bioefen ustiapen-aurrekontuan, aurrekontu-kreditu nahikoa dagoela egiaztatu da.

Deialdi honek eta berau izapidetzeko eta ebazteko jarduketek arau multzo honi men egin behar diote: azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua (Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena); eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren oinarritzko arauak.

Deialdi honek ez du inolako jarduketarik behar Europar Batasuneko erakundeen aurrean; izan ere, diruz lagun daitezkeen jardueren izaera ekonomikorik ezak erabat baztertzen du estatu-laguntzei buruzko Europako araudiaren aplikazio-eremutik, I+G+Bko Europar Batasuneko Esparruaren babespean.

Hori guztia dela eta, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren hamaseigarren xedapen gehigarriko 1. apartatuan ezarritakoa betez, martxoaren 23ko 116/2021 Dekretuak, Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala zehazten duenak, 2.b) eta 4.2 artikuluetan dioenarekin lotuta, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

##### 1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da Alzheimerren eta beste dementzia batzuen arloan osasun-ikerketarako eta -garapenerako laguntzak emateko deialdiaren oinarriak ezartzea, publizitate, gardentasun, lehia, objektibotasun, berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioekin bat etorriz. Deialdia Alzheimer-en gaixotasunari eta beste dementzia batzuei buruzko ikerketara bideratuta dago, zehazki, gaixotasunaren prebentzio, diagnostiko, tratamendu eta etiologia ikertzera, baita azterlan epidemiologikoetara eta pazienteentzako prestazio asistentziala nahiz psikosoziala hobetzera ere. Eta Alzheimer-en gaixotasunari eta beste dementzia batzuei buruzko ikerketa soziosanitariora eta antolaketa-ikerketara ere bai, pazienteen eta senideen bizi-kalitatea hobetuz.

Deialdi honen ondoreetarako, ikerketa eta garapena ez dira jarduera ekonomikotzat hartuko; beraz, bete egin beharko dira Ikerketa eta Garapenerako eta Berrikuntzarako estatu-laguntzei buruz Europar Batasuneko esparruan Europako Batzordeak ezarritako baldintzak (2014-06-27ko EBAO, C 198), 19. puntukoak (ikerketa-erakundeen eta -azpiegituren jarduera primarioak eta ezagutzen transferentzia-jarduerak). Beraz, deialdi honetatik kanpo geratzen da jarduera ekonomikoaren finantzaketa, hala nola:

1.– I+G zerbitzuak eskaintzea, eta enpresen kontura egindako I+G.

2.– Ikerketa-azpiegituren alokairua.

3.– Bestelako jarduera ekonomiko guztiak, baldin eta ez badituzte betetzen Ikerketa eta Garapenerako eta Berrikuntzarako estatu-laguntzei buruz Europar Batasunaren esparruan ezartzen diren baldintzak (2014-06-27ko EBAO, C 198).

Munduko Medikuen Elkartearen Helsinkiko Adierazpenean ezarritako oinarritzko printzipioak (Gizakiengan egindako ikerketa medikoetarako printzipio etikoak) eta ikerketa biomedikoaren arloan indarrean dagoen legeriak ezarritako baldintzak errespetatuko dituzte ikerketa- eta garapen-proiektuek.

Proiekturen batean beharrezkoa bada pertsonekin esperimentatzea edo giza jatorriko lagin biologikoak erabiltzea, ikerketa egingo den erakundearen Ikerketarako Etika Batzordeak (indarrean dagoen araudiaren arabera eraturia izan behar da) emandako nahitaezko baimena aurkeztu beharko da. Batzordearen baimen horri baimen informatua eta pazientearentzako informazio-orria erantsiko zaizkio.

## 2. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarean (ZTBES) sartuta dauden eta horretarako kreditatuta dauden agenteek eskuratu ahal izango dituzte agindu honetan aipatzen diren laguntzak, bat etorri Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarearen osaera arautzen eta eguneratzen duen ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuan ezarritakoarekin, eta, orobat, haren xedapen iragankorren edo ordezkio xedapenen arabera.

2.– Agindu honen 4. artikuluan zehazten da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko zein eragile kategoria zehatz izan ahalko diren dirulaguntzen hartzaile.

3.– Eragileek elkarlaneko proiektuak aurkez ditzakete; hau da, talde-proiektuak, non erakunde kideek ez baitute zertan onuradun izan (2. artikuluko honetan azaldu bezala), baina bai proiektua garatzeko ezinbestekoak eta gaitasun nahikoa dutenak, DLOren 11.3 artikuluan xedatutakoarekin bat. Elkarlaneko proiektuetan, lankidetzak-akordio bat itundu beharko dute parte hartzen duten erakunde guztiek, haien legezko ordezkariak sinatua, proiektua gauzatzeko dela bermatu duena eta emaitzak ustiatzeko hitzartutako baldintzak jasoko dituenak.

4.– Eragileek ZTBESn egiaztatuta egon beharko dute agindu honetako laguntzen eskabideak aurkezteko epea hasten den egunean.

5.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan adierazitako inguruabarretako batean dauden erakundeak ezingo dira izan onuradun. Nolanahi ere, erakunde onuradunak egunean izan behar ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai onuradun izateko, bai emandako dirulaguntza likidatu arte onuradun izateko.

Erakunde onuraduna izatea debekatzen duten inguruabarretako batean ere ez daudelako justifikazioa azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13.7 artikuluan aurreikusitako bitartekoen bidez egin ahal izango da.

Laguntza-eskabidea aurkeztearekin batera, eragile eskatzaileak baimena ematen du organo emaileak zuzenean egiaztatu dituzan artikuluko hauetan adierazitako inguruabarrak: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamenduaren 18. artikulua (zerga-betebeharrak) eta 19. artikulua (Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak). Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen erregelamendu hori.

Hala ere, eragile eskatzaileak espresuki ukatu ahal izango du baimen hori, eta, hala eginez gero, ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamenduaren 22. artikuluko 1. puntutik 3. puntura bitartean adierazi bezala.

Gainera, martxoaren 3ko 1/2022 lege onetsi berriaren azken xedapenetako laugarrena betez (EAEONALTBren 50. artikulua 5. apartatua aldatu du), ezingo zaie laguntzarik edo dirulaguntzarik eman sexuaren zioz diskriminatzen duten jardueri, ezta sexuaren zioz diskriminatzeagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen bat ezarri zaien pertsona fisikoei eta juridikoei ere, dagokion zehapenean ezarritako denbora-tarte osoan. Halaber, laguntza eta dirulaguntzetatik kanpo geratzeko dira estatu-araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izan behar duten arren halakorik ez

duten enpresak, eta, estatu-legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan finkatzen duen moduan sexu-jazarpena edo sexuaren ziozko jazarpena prebenitzeko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresak.

Halaber, ezin izango dute dirulaguntzarik jaso ingurumen-arloko arau-hauste astun eta oso astunengatik zehatutako pertsona juridikoek, Hondakinen eta Lurzoru Kutsatuen apirilaren 8ko 7/2022 Legearen, Ekonomia Zirkularra Bultzatzekoaren, 109.4 artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 116. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Dirulaguntza ezingo da ordaindu erakunde onuradunak ez baditu aurreko zerga-eginbeharrak bete.

6.– Erakunde eskatzailearen legezko ordezkariaren sinadurak berekin dakar jarduera behar bezala egiten laguntzeko konpromisoa, baldin eta laguntza ematen bazaio, eta eskabidean jasotako datuak egiazkoak direla egiaztatzeko eta berresteko konpromisoa. Era berean, eskatutako baldintzak betetzen direla adierazten da, eta ikerketa-jardueretan aplikatzekoa den araudia ere betetzen duela.

7.– Jarduketa honen onuradun izateko, erakunde eskatzaileak eta ikertzaile nagusiak ikerketa-proiektu burutuen amaierako memoria zientifikoa eta ekonomikoa Bioefi aurkezteko betebeharra beteta izan beharko dute, baldin eta jarduketa mota horren aurreko deialdietan finantzatu badira. Baldintza hori deialdi honetarako eskabideak aurkezteko epea ixten den unean bete behar da. Baldintza hori betetzen ez bada, eskabidea ezetsi egingo da.

3. artikulua.– Talde eskatzailearen betekizunak.

1.– Talde eskatzailetzat hartuko da ZTBESko eragileek osatutako taldea (2. artikuluan arabera onuradun direnak zehazki), 4. artikuluan ezarritako modalitatean eskatzen duena ikerketarako laguntza. Taldeko kideek kasuan kasuko jarduketa gauzatzen parte hartuko dute, zein bere zereginenez arduratuta, proposatutako lan-planari jarraikiz.

2.– Ikertzaile nagusi arduradun batek edo bik gidatuko dute talde eskatzailea. Bi ikertzaile nagusik (IN eta ko-IN) aurkezten dituztenean, biek izan behar dute laguntza eskatzen duen erakundearen plantillakoak, eta horietako batek solaskide gisa jardungo du ondore guztietarako (lehenespeenez, IN izango da). Ikertzaile nagusiei aplikatzen zaizkien baldintza eta bateraezintasun-araubide berberak bete beharko ditu ko-INK, eta curriculum-aintzatespen bera izango dute. Bi ikertzaile nagusik zuzendutako proiektuetan, argi eta garbi adierazi beharko da eskabide-memorian bien arteko lidergo-trantsizio prozesu bat hasi nahi dela, haietako bat laster erretiratuko dela-eta. Proiektu horietan, erretiratzear den ikertzailea ko-IN izango da, eta lidergoa hartuko duena, berriz, IN. Ebaluazioan, garrantzi bera izango dute bi CVek. Trantsizio-aldi hori ez da inoiz izango elkarren segidako bi proiekturako behar dena baino luzeagoa.

3.– Ikerketa Sanitarioko Zentroen kategoriako akreditazioa duen ZTBESren eragile batek, gutxienez, hartu behar du parte.

4.– Finantzaketa zenbait eragilek eskatzen badute, ikertzaile nagusietako batek, parte hartzen duten eragileen plantillakoa, bere gain hartuko du eskabidearen koordinatzailearen egitekoa eta Bioefekiko solaskide izatekoa, azken hori laguntzaren erakunde kudeatzailea den aldetik.

5.– Talde eskatzaileetako kideek funtzionario-, estatutu- edo kontratu-lotura formalizatu izan beharko dute, agindu honen 2. artikuluan ezarritakoarekin bat, bai ZTBESko eragile onuradunarekin, bai proiektua egiteko zentroarekin, bai beste erakunde batzuekin, baldin eta eragileak indarreko hitzarmen bat badauka beste erakunde horiekin ikertzailearen lotura babesteko. Lotura proiektuaren egikaritze-aldi osorako ez bada, erakunde horren legezko ordezkariak adierazpen

bat sinatu beharko du, proiektuan IN edo laguntzaile gisa parte hartzeko baimena ematen zaiona eta atxikimenduari eusteko konpromisoa hartuko duena, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik proiektua gauzatzeko epea amaitu arte.

6.– Ikertzaile nagusiek (baita ko-INek ere) eskabide bakar batean parte hartu ahal izango dute rol horretan. Ikerketa-taldeko gainerako kideek ez dute mugarik izango proiektu batean baino gehiagotan parte hartzeko.

#### 4. artikulua.– Dirulaguntzak.

Alzheimerri eta beste dementzia batzuei buruzko ikerketa biomedikoko proiektuak: ikerketa sanitarioari laguntzeko ildo honetan, edozein kategoriatan akreditatutako ZTBESko eragileak izango dira onuradun, eta ezinbesteko baldintza izango da, gutxienez, ZTBESko eragile batek parte hartzea ikerketa sanitarioko zentroaren kategorian. Ikerketa-proiektuek 2 edo 3 urteko iraupena izan dezakete, eta 2022an hasi behar dira nahitaez.

Ikerketa biomedikotzat hartuko da osasun publikoaren eta zerbitzu sanitarioen arloan egiten den oinarritzko ikerketa (gaixotasunera orientatua), ikerketa kliniko (pazientera orientatua) eta ikerketa epidemiologikoa; halaber osasuna nahiz ikerketa biomedikoko prozesuak eta teknologiak hobetzera bideratutako garapen teknologikoa.

Alzheimerreko ikerketa biomedikoko proiektuen modalitate bakarra ezartzen da, eta, ikerketa-taldea zein den, honako hauek baloratuko dira:

1.– Talde gazteak sustatzea: ikertzaile nagusia (IN) 1977an edo geroago jaioa izaki, lehenago IN gisa lehia-deialdi bidez finantzatutako proiektuetan parte hartutakoa ez den taldeen proiektuak. Epea zenbatzeko, egoera hauek hartuko dira kontuan:

a) Amatasunaren edo aitatasunaren ondorioz hartutako atsedenaldiak, Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean babestutakoekin bat. Seme-alaba bakoitzeko urtebete zabalduko da.

b) Eskatzailearen gaixotasun edo istripu larria, medikuak hiru hileko edo gehiagoko baja emanda. Urtebete luzatuko da epea.

c) Mendekotasuna duten pertsonen emandako arreta, hiru hileko tarte batekoa gutxienez, bat etorritz Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean xedatutakoarekin. Urtebete luzatuko da epea.

2.– Ohiko taldeen ikerketa biomedikoko proiektuak: ikertzaile nagusi batek zuzendutako ikerketa-taldeen garatutako proiektuak, apartatuetan ezarri diren baldintza orokorrak bete behar dituztenak, eta tasun espezifikorik ez dutenak.

#### 5. artikulua.– Finantzatu daitezkeen gastuak.

1.– Egoeran egoerako laguntzaren bidez, ondoren adierazten diren gastuak ordainduko dira, betiere proiektua gauzatzearekin zuzenean lotuta badaude, eta eskabidearen memorian alde zuzenak aurretik zehaztuta. Laguntza-eskabidea urterokoka banatzeko, 6. artikuluan adierazitako urteko deialdiaren zuzkidura hartuko da kontuan.

2.– Agindu honen bidez araututako dirulaguntzak jasotzea bateragarria izango da beste administrazio publiko edo erakunde publiko zein pribatu batzuek –Espainiakoe, Europar Batasuneko edo nazioartekoek– xede bererako emandako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, baldin eta, dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideok bakarka hartuta edo batera,

diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen ez bada. Halakorik gertatuz gero, emandako dirulaguntza kasuan kasuko gehieneko mugaraino murriztuko da.

3.– Langile-gastuak. Proiektua gauzatzeko behar diren eta arduraldi espezifikoak duten langileen kostuak, baldin eta erakunde onuradunarekin laneko kontratu-lotura badute.

Halaber, ikertaldeko partaide den profesional sanitarioa jarduera asistentzialetik liberatzeak dakartzan kostuak apartatu honetan daude sartuta, baldin eta proiektuan jarduteko liberatzen bada (lanaldiaren % 50 gehienez). Proiektu batean deialdiak finantzatutakoa baino arduraldi luzeagoa behar badute ikertzaileek, zentro onuradunaren kontura izango da.

4.– Ondasunak eskuratzeko eta zerbitzuak kontratatzeako gastuak. Proiektua egiteko behar den material inbentariagarria sartzen da, eta espresuki kanpoan uzten dira altzariak eta instalazioak.

Halaber, material suntsikorra eta gastu osagarriak, material bibliografikoa eta zabalkundearekin lotutako gastuak (argitalpenak, etab.) sartzen dira, baita erakunde onuradunaren ikerketan laguntzeko zerbitzu nagusi eta orokor batzuen erabilera-kostuak ere, betiere proiektua garatzeko behar bezala justifikatzen bada eta beharrezkoa bada.

Bulegoko material orokorra ez da diruz lagunduko (fotokopiak, tonerra, telefono-gastuak eta abar).

Proiektua garatzeko kanpoko zerbitzuak kontratatzea aurreikusita egonez gero, eskabidearen memorian aipatu beharko da, honako hauek zehaztuta: zerbitzuaren nolakotasuna eta kontratuaren kostua. Azpikontratatu ahal izango dira proiektuko jarduerak, dirulaguntza jasotzen duen jarduketaren parte direnak, baldin eta dirulaguntzaren onuraduna den eragileak egin ezin baditu (dena dela, egiaztatu egin beharko da hori proiektuaren memorian). Onuradun bakoitzeko azpikontratatu den jardueraren kostu osoa ezingo da izan onuradun horri dagokion aurrekontu finantzarriaren % 50 baino handiagoa.

Kontratazioetarako, diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoak gainditzen baditu sektore publikoaren kontratazioa arautzen duten legeetan kontratu txikietarako ezarritako kopuruak, eragile onuradunak, kontratatu aurretik, hiru eskaintza gutxienez eskatu beharko ditu, eta espresuki justifikatu beharko du hautaketa hori, memoria batean, ez bada proposamen ekonomikorik abantailatsuena hautatzen. Aipatu memoria justifikazioan aurkeztu beharko da.

5.– Bidaia eta joan-etorri gastuak. Landa-lanak, koordinazio-bilerek eta kongresuek, hitzaldiek eta halakoek eragindakoak, baldin eta proiektuarekin zuzenean lotuta badaude.

6.– Deialdi honen kontura finantza daitezkeen gastuak izango dira, halaber, proposatutako proiektuaren zeharkako gastuak (zuzeneko kostuaren % 10), eta halakotzat hartuko dira proiektua gauzaten den erakundearen egiturazko gastuak (argia, ura, garbiketa, mantentze-lanak edo antzekoak), baldin eta proiektu jakin bati zuzenean egotzi ezin bazaizkio ere, proiektua gauzatzeko beharrezkoak badira.

7.– Ikertzaile taldeko kideek –prestakuntza sanitario espezializatuan dauden graduonek barne– ez dute inolako ordainsaririk jasoko proiektuaren kontura.

8.– Proiektua amaitu ondoren, emandako laguntzen kontura erositako material inbentariagarria eta bibliografikoa proiektua gauzatu duen erakundearentzat izango da, eta ikerketa-jardueretarako erabiliko da nagusiki.

9.– Dena dela, ondore horietarako, aplikatzekoak izango dira DLOren 31. artikulua eta DEOren 83. artikulua, oinarrizkoak baitira.

#### 6. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Deialdi hau finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa milioi bat ehun eta lau mila laurohun eta hirurogeita hamazazpi euro eta berrogeita sei zentimokoa (1.104.477,46) da. Baliabide ekonomiko horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituetatik datoz, eta honela banatzen dira: 695.820,80 euro 2022an, 276.119,36 euro 2023an eta 132.537,30 euro 2024an.

#### 7. artikulua.– Emateko prozedura.

Deialdi hau lehiaketa-teknikaren bidez ebatziko da. Ondore horietarako, laguntzak emateko orduan, 4. artikuluan ezarritako modalitaterako aurkeztutako proiektuak alderatuko dira, 10. artikuluan ezarritako balorazio-irizpideei jarraituz, proiektuen arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko, eta laguntzak hurrenkera horren arabera emango dira, harik eta dirulaguntza-lerro bakoitzari esleitutako kredituak agortu arte.

#### 8. artikulua.– Eskabideak aurkezteko era eta epea.

1.– Eskabide bakarra aurkeztuko da proiektu bakoitzeko. Koordinazio-proiektuen kasuan, erakunde koordinatzailea izango da eskabidea bidaltzeko arduraduna.

2.– Agindu honetatik eratorritako eskabidea, errekerimendu, jakinarazpen, zuzenketa, justifikazio eta gainerako izapide guztiak elektronikoki gauzatuko dira, bat etorrituz Administrazio Elektronikoaren otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren 28. artikuluekin (2012ko martxoaren 9ko EHAA, 50. zk.), Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 9., 10. eta 14. artikuluekin eta E-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa –Platea– onartzen duen Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenarekin.

Helbide honetan eskuratu daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan onartutako identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>.

Izapide elektronikoak ordezkari baten bidez egin ahal izango dira, eta, horretarako, aipatutako ordezkariak Eusko Jaurlaritzako Ordezkarien Erregistroan inskribatu beharko da, helbide honen bitartez: <https://www.euskadi.eus/ahalordeen-erregistro-elektronikoa/web01-sede/eu/>

3.– Eskabidea lortzeko eta hura betetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikora jo beharko da, helbide hauetara:

Gaztelaniaz: [www.euskadi.eus/servicios/1048906](http://www.euskadi.eus/servicios/1048906)

Euskaraz: [www.euskadi.eus/zerbitzuak/1048906](http://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1048906)

4.– Eskabidea betetzeko, erakunde eskatzailearen sinadura aitortuaz gain, 8.6 artikuluan adierazitako dokumentuak aurkeztu behar dira, Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuan xedatutakoari jarraikiz. Sinadura elektronikoaren data hartuko da aurkezpen-datatzat.

5.– Erakundeek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dituzte eskabidea eta horri erantsi beharreko gainerako agiriak. Halaber, erakunde eskatzaileak aukeratzen duen hizkuntza hori erabiliko da prozedura osoan eta eskabidetik eratorritako jarduketetan, Euskararen Erabilera Arautzen duen 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeko 5.2.a) eta 6.1 artikuluek xedatzen duten moduan.

6.– Honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Ikerketa-proiektuaren memoria, eredu normalizatuan (I. eranskina), parte hartzen duen erakunde bakoitzaren informazioarekin batera (I-A eta I-B eranskinak). Proiektuaren memoria ingelesez ere onartuko da.

b) Proposamenaren koordinatzaile gisa diharduten ikertzaile nagusien Curriculum Vitae Normalizatu (CVA), automatikoki sortua CVN editoretik (<http://cvn.fecyt.es/editor>) edo FECYT-en CVN arauan ziurtatutako edozein erakundetatik, baldin eta CVN zerbitzua eskaintzen badute. Talde gazteak sustatzeko modalitatearen kasuan, taldeko kide guztien CVA ere aurkeztu beharko dute.

c) Proiektua proposatu duen ikerketa-taldearen historia zientifiko-teknikoaren memoria (II. eranskina), eredu normalizatuan, ohiko taldeen modalitatean soilik.

d) Eragile eskatzaile bakoitzaren erantzukizunpeko adierazpena, legezko ordezkariak sinatua (III. eranskina).

e) Jarduerarako betekizun gisa, eta ezaugarriak kontuan hartuta, legez ezarritako baimen edo txosten hauek izan beharko dituzte proiektuek:

1) Ikertzaile nagusia kide den erakundearen Ikerketako Batzorde Etikoaren txostena, hala behar denean.

2) Proiektuak giza jatorriko lagin biologikoak behar baditu, Ikerketarako Euskal Biobankuaren ziurtagiria, zeinetan egiaztatzen baita ikertzaile nagusiak Biobankuari lagin biologikoak biltzeko edo/eta lagatzeko eskatu diola deialdi honetan laguntza eskatzen den ikerketa-proiekturako.

Puntu honetan aipatutako dokumentuak erakunde onuradunen esku geratuko dira, hartara eragotzi gabe dirulaguntza ematen duen organoak egin ditzakeen egiaztapenak nahiz kontrol-organo eskudunek egin ditzaketen egiaztapenak eta kontrolak, eta kontrol- eta egiaztapen-jarduera horietan eskatzen zaien informazio guztia emango dute.

7.– Apartatu honetan aipatu eredu normalizatu guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa egongo dira eskuragarri.

8.– Laguntzak eskatzeko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

9. artikulua.– Eskabideko akatsak zuzentzea.

1.– Dirulaguntza-eskabideetan datuen bat bete gabe utzi bada, edo ez badira aurkeztu eskatutako agiri guztiak, erakunde eskatzaileari hamar egun balioduneko epea emango zaio akatsa zuzentzeko edo falta diren agiriak eransteko, eta, halaber, jakinaraziko zaio horrela egiten ez badu eskabidean atzera egin duela ulertuko dela; dena dela, Administrazioak eskabide horri buruzko berriazko ebazpena eman eta jakinarazi beharko du, bat etorritz Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatzen denarekin.

2.– Jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bitartez egingo dira. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

3.– Jakinarazpen-sistemak aukera emango du egiaztatzeko zer egunetan eta zer ordutan jarri zaion eskuragarri jakinarazpena jakinarazten den egintzako interesdunari, eta noiz sartu den haren edukian; une horretatik aurrera, jakinarazpena egintzat joko da. Jasota baldin badago interesdunaren eskura jarri dela, eta hamar egun natural igarotzen badira interesduna edukian sartu



gabe, jakinarazpenari uko egin zaiola ulertuko da eta, prozedurari jarraituz, izapidea egintzat joko da, salbu eta ofizioz edo hartzaileak eskatuta egiaztatzen bada teknikoki edo materialki ezinezkoa izan dela jakinarazpenean sartzea.

4.– Lankidetzan garatzekoak diren proiektuen kasuan, aipatu jarduera proiektuaren koordinatzaile gisa diharduenarekin gauzatuko da.

10. artikulua.– Eskabideak ebaluatzea eta hautatzea.

Balioespen-batzordeak ebaluatu eta hautatuko ditu epearen barnean aurkeztutako edo zuzendutako eskabideak, aurreko artikuluan ezarritakoarekin bat. Batzorde hori artikuluko honen 1. apartatuan zehazten da.

1.– Hauexek izango dira balioespen-batzordeko kideak:

- a) Batzordeburua: Osasun Saileko Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko zuzendaria.
- b) Bokalak:
  - Bioefeko I+Gren kudeaketa koordinatzeko arduraduna.
  - Bioefeko koordinazio zientifikoaren arduraduna.
  - Osakidetzako Ospitaleko Arreta Koordinatzeko zuzendariordea.
  - Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren zuzendaria.
  - Eitb – Euskal Irrati Telebistako ordezkari bat.
  - Alzheimerre dutenen EAEko elkarten ordezkari bat.
- c) Idazkaria: Bioefen I+Gko laguntza-deialdiak kudeatzeko arduraduna.

2.– Balioespen-batzordearen osaera izenduna jakinaraziko da euskadi.eus egoitza elektronikoa, interesdunei bermatu behar baitzaie batzordeko kideak errefusatzeko eskubidea eraginkortasunez baliatzeko aukera, betiere Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz.

3.– Balioespen-batzordeak honako irizpide hauen arabera balioetsiko ditu proiektuak:

a) Ikerketa-proiektuen kalitate zientifiko-teknikoa, deialdi honetako 10. artikuluko 4. puntuan ezarritakoa kontuan hartuta: 60 puntu gehienez (3. puntuan deskribatutako kanpoko ebaluazio zientifikotik jasotako puntuazioa emango zaio).

b) Proiektuak lehentasunezko arlo eta ildoetara egokitzea: 10 puntu gehienez. Proiektuak oinarri hauetako 1. artikuluan jasotako deialdiaren gaira eta xedera zer mailatan egokitzen diren aztertuko da.

c) Proposamenak EAEko sistema sanitarioarentzat duen interesa: 30 puntu gehienez. Atal honetan, honako hauek balioetsiko dira:

1) Proiektuak zer-nola egokitzen diren Osasun Sailaren 2021-2024 aldirako ildo estrategikoetara eta horietatik eratorritzen diren estrategia espezifikoetara, EAEko Osasun Planera, 2022-2025 aldirako osasun-ikerketako eta -berrikuntzako strategiara eta 2021-2024 aldirako EAEko arreta soziosanitarioko lehentasun estrategikoetara. Dokumentu horiek hemen daude eskura: <https://www.euskadi.eus/informacion/publicaciones-del-departamento-de-salud/web01/-s2osa/es/#3467>. 5 puntu gehienez.

2) Proiektuetako ikertzaile nagusiak profesional sanitarioak diren balioetsiko da; gehiago balioetsiko da ikertzaile nagusiak asistentzia-jarduerako profesionalak izatea. 7 puntu gehienez.

3) Lehentasunezkoak izango dira zentro anitzeko proiektuak. Zentro anitzeko proiektu deritze deialdi honen 2. artikuluan adierazitako erakunde onuradunetako bik edo gehiagok parte hartzen dutenei, bereziki ikerketa sanitarioko 2 zentrok edo gehiagok, edo sare sanitario osoan ikerketa-eremu berberetan lan egiten duten ikertzaileen eta langile kliniko-asistentzialen lankidetzak eskatzen dutenei. 10 puntu gehienez.

4) Bereziki baloratuko dira talde gazteek gidatutako ikerketa-proiektuak. 5 puntu gehienez.

5) Proposatutako ikerketak arreta sanitarioarako irispidean eta gaixotasunaren diagnostikoan edo tratamenduan gizonen eta emakumeen artean dauden desberdintasunak hartzen ditu kontuan: 3 puntu gehienez.

4.– Proiektuak ebaluatu aurretik, balioespen-batzordeak kanpo ebaluatzaileei laguntza eskatuko die; ebaluatzaile horiek proiektuen kalitate zientifiko-teknikoari buruzko txostenak egingo dituzte, eta honako alderdi hauek balioetsi eta haztatuko:

Irizpide hauen arabera egingo dute ebaluazio zientifiko-teknikoa:

a) Ikerketa-taldearen balioespena:

1) Talde gazteak sustatzea: ikertzaile taldearen balioespen orokorra, osaera-orekari, baterako lanei, taldean irekitako ikerketa-ildoei eta taldekideen osagarritasunari erreparatuta. Taldearen ikerketa-ibilbidea eta haren potentziala balioestea, ikerketa-proiektuak balioestea, baita saiakuntza klinikoak, ikerketa-jardueraren ekarpenak Osasun Sistema Nazionalaren garapen klinikoari, asistentzialari edo teknologikoari, argitalpenak, patenteak eta jabetza industrialeko beste erregistro batzuk ere, ikerketa-taldearenak, proiektuaren gaiarekin lotuta. 20 puntu gehienez.

2) Ohiko taldeak: ikerketa-proiektuak balioestea, baita saiakuntza klinikoak, ikerketa-jardueraren ekarpenak Osasun Sistema Nazionalaren garapen klinikoari, asistentzialari edo teknologikoari, argitalpenak, patenteak eta jabetza industrialeko beste erregistro batzuk ere, ikertzaile nagusiarenak eta ikerketa-taldearenak, proiektuaren gaiarekin lotuta. Ikerketa-taldea proiektuarekin bat datorren ere baloratuko da. 20 puntu gehienez.

b) Proiektuaren balioespen zientifiko-teknikoa: kasuan kasuko hipotesia eta ikerketa-taldek gaiaz dakiena balioestea. Proiektuaren helburuen garrantzi zientifiko-sanitarioa. Aurreikusitako emaitzen inpaktu potentziala pazienteetan eta sistema sanitarioan, oro har. Proposamenaren bideragarritasuna eta arriskuak. Analisi metodologikoa eta lan-plana. 33 puntu gehienez.

Balioespen zientifiko-teknikoan proiektuek 20 puntuko gutxieneko puntuazioa eskuratzen ez badute, balioespen-batzordeak ez ditu finantzatzeko moduko proiektutzat joko.

c) Proiektuaren balioespen ekonomikoa. Proiektua gauzatzeko eskatutako baliabideen egokitasuna. Eskatutako baliabideen justifikazioa. 7 puntu gehienez.

Balioespen-batzordeak ebaluazio zientifiko-tekniko horren emaitza hartuko du, agindu honen 10. artikuluko 2.a) puntuan adierazitako balorazio-irizpideari dagokionez.

5.– Laguntzen zenbatekoa kalkulatzeko, balioespen-batzordeak honako hauek kontuan hartuko ditu: aurkeztutako aurrekontua, deialdia finantzatzeko dauden baliabide ekonomikoa, eta aurkeztutako aurrekontua zer neurritan egokitzen den proposatutako helburuetara. Halaber, batzordeak kontuan hartuko ditu kanpo ebaluatzaileek txostenean egindako oharak.

6.– Emandako laguntzek eskatu den kopurua osorik edo partez estali ahal izango dute, baina, edozein modutan ere, baterako finantzaketa kontuan hartuta, ezin izango da inola ere gainditu diruz lagundutako jardueraren kostu erreala.

11. artikulua.– Ebazpena, jakinarazpena eta errekurtsioak.

1.– Aurkeztutako eskabideak prozedura bakar batean izapidetuko dira (4. artikuluan jasotakoari jarraikiz), eta horri dagokion ebazpenarekin amaitu. Ebazpen horretan erabakiko dira erakunde eskatzaileek planteatutako gaiak, eta Osasuneko sailburuordeari dagokio, balioespen-batzordearen proposamena kontuan hartuta.

2.– Ebazpenean erabakiko da agindu honetako dirulaguntzak eman edo ukatzen diren. Ematen badira, honako hauek zehaztuko dira: erakunde onuraduna, diruz lagundutako proiektua eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa urteko kuotatan banakatuta. Dirulaguntza ukatzen bada, ordea, zergatia azaldu beharko da.

3.– Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuz jakinaraziko da; horretarako epea gehienez sei hilabetekoa izango da, agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori igarota ez bada ebazpenik argitaratu, euren eskabidea ezetsi egin dela ulertu ahal izango dute erakunde eskatzaileek, bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 25.5 artikuluan xedatutakoarekin eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. eta 25.1.a) artikuluekin.

4.– Ebazpenak ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, haren aurka, erakunde eskatzaileek gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote Osasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan zehaztutakoari jarraituz.

5.– Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta 15 eguneko epean, eragileek espresuki uko egin ahal izango diote. Aipatutako epean uko egiten dela adierazi ezean, deialdiaren ondoretarako, laguntza onartu dela ulertuko da.

12. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Dirulaguntzaren erakunde onuradunek honako betebeharrak hauek izango dituzte:

1.– Dirulaguntza eman den xede eta kontzeptuetarako erabiltzea.

2.– Deialdia kudeatzen duen organoari deialdi honen bidez jasotako dirulaguntzari buruz eskatzen zaion informazioa ematea.

3.– Eskabidean jasotako datuak edo inguruabarrak aldatuz gero, deialdia kudeatzen duen organoari jakinaraztea, aldaketa gertatu eta gehienez hilabeteko epean.

4.– Laguntza-eskabidean adierazitakoaren gainean aldaketaren bat egin nahi bada, aurrez eta arrazoituta eskatu beharko zaio deialdia kudeatzen duen organoari. Deialdi honen ondoretarako, laguntza-eskabidean aurreikusitako kontzeptuekiko gastu-desbideratzeak ez dira aldaketatzat jotzen, baldin eta % 20 gainditzen ez badute.

5.– Halaber, erakunde onuradunek proiektuen finantzaketaren izaera publikoa ezagutarazteko neurriak hartu beharko dituzte, Eitb Maratoia ekimenaren edozein dibulgazio-ekitalditan parte hartuz. Horrela, ikerketaren ondorioz sortzen diren argitalpen, tesi, karrera amaierako proiektu eta kongresuetarako komunikazio guztietan Eitb Maratoia aipatu beharko da berariaz finantzaketa-iturri gisa.

2022ko urriaren 20a, osteguna

6.– Erakunde eskatzaileek eskura izan beharko dituzte kasuan-kasuan onuradun bakoitzari aplikatu ahal zaion merkataritza- eta sektore-legerian eskatutako terminoetan behar bezala ikuskatutako kontabilitate-liburuak, izapidetutako erregistroak eta gainerako dokumentuak, egiaz-tapen- eta kontrol-eskumenak egoki bete direla bermatzeko.

7.– Erakunde onuradunek DLoren 14. artikuluan ezarritako gainerako baldintzak bete beharko dituzte, oinarrizkoak baitira.

8.– Erakunde onuradunak egindako eta memoria ekonomikoan adierazitako gastuen jatorrizko fakturak eta gainerako frogagiriak gorde beharko ditu 5 urtez.

9.– Laguntzen zertarakoa fiskalizatzeko dituzten funtzioak aurrera eramanez, Kontrol Ekonomiko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatutako informazio oro eman beharko dute erakunde onuradunek.

13. artikulua.– Laguntzak ordaintzea eta kudeatzea.

1.– Bioef laguntza kudeatzen duen organoa da.

2.– Laguntza kudeatzen duen organoak, laguntza onartzeko ezarritako epea igaro ondoren, lehenengo urtekoan emandako dirulaguntza transferituko du.

3.– Urteko kuoten gehieneko zenbateko osoa honela banatuko da, gutxi gorabehera:

	2022	2023	2024	Guztira
EiTB Alzheimerra	695.820,80 € (% 63)	276.119,36 € (% 25)	132.537,30 € (% 12)	1.104.477,76 €

4.– Ikerketa sanitarioan eskumena duen zuzendaritzak memoria zientifikoa eta proiektuak eragindako gastuen agiri bidezko justifikazioa (IV. eta V. eranskinak) onartu ondoren ordainduko dira hurrengo urteei dagozkien zenbatekoak.

5.– Erakunde onuradunek memoria zientifikoak eta ekonomikoak bidaliko dizkiote laguntza kudeatzen duen organoari, eta organo horrek, ikerketaren sanitarioan eskumena duen zuzendaritza onartu ondoren, gainerako urtekoetarako finantzaketa erabilgarria gaituko du.

6.– Erakunde onuradunak ikusiko balu, justifikatutako arrazoiengatik, ezin duela finantzaturiko ikerketa-proiektua burutu, ahalik eta azkarren jakinarazi beharko dio organo kudeatzaileari, eta proiektuaren garapen zientifikoaren egoerari buruzko txostena eta balantze ekonomikoa ere aurkeztu beharko dizkio.

Organo kudeatzaileak, espedientea aztertu ondoren, Osasuneko sailburuordeari proposatuko dio dagokion laguntzaren likidazioa egiteko ebazpena eman dezala, eta zehatz dezala zer kopuru itzuli behar den, hala egin behar bada.

7.– Laguntza kudeatzen duen organoak, komenigarria dela uste badu, proiektuaren jarraipen hobia egiten lagunduko duen informazio osagarria aurkezteko eskatuko du.

#### 14. artikulua.– Laguntzen justifikazioa.

1.– Laguntzaren erakunde onuradunak urtero justifikatu beharko du egindako lana eta laguntzari emandako helburua. Horretarako, honako agiri hauek aurkeztu beharko dizkio organo kudeatzaileari:

a) Justifikazio-memoria zientifikoa, IV. eranskinean agertzen den eskemaren arabera eginga. Memoria zientifiko horretan, proiektuaren garapen-egoerari, egindako jarduketei eta betetako helburu partzialei buruzko deskribapen bat egin beharko da, eta ekonomia-betearazpenaren laburpen bat aurkeztu. Memoria ikertzaile nagusiak edo proiektuaren koordinatzaileak sinatuko du, koordinazio-proiektuen kasuan.

b) Parte hartzen duen eragile bakoitzaren justifikazio memoria ekonomikoa (Excel), eragile onuradun bakoitzaren legezko ordezkariak sinatua (V. eranskina). Memoria ekonomikoarekin batera, justifikazio-aldian egindako gastuak egiaztatzen dituzten ordaindutako fakturen egiazko kopiai aurkeztuko dira. Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueraren kostuaren % 100 justifikatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu. Jatorrizko fakturak erakunde onuradunetan artxibatuta egon beharko dira gehienez bost urtez, justifikazio-epetik aurrera, eta eskuragarri egongo dira laguntzak kudeatzen dituen organoak egiten duen egiaztapen orotarako.

Amaierako memoria zientifikoak eta ekonomikoak proiektua burutzeko epea amaitu eta hurrengo hiru hilabeteetan aurkeztuko dira.

2.– Jarraipen-memorien aldeko balioespenak eta hurrengo urterako laguntza ordaintzeak ez du esan nahi egindako gastuak onartzen direnik, ez eta gastuok aurrekontuei egozten zaizkien ere; izan ere, amaierako memoria ekonomikoarekin batera balioetsiko da hori.

3.– Amaierako memoriarekin batera, behar bada, ikerketaren ondorioz sortu diren argitalpen, tesi, karrera amaierako proiektu eta kongresuetarako komunikazio guztien kopia bana aurkeztuko da.

4.– Urte anitzeko jardueretan finantzaketaren jarraitutasunari eusteko, ezinbestekoa izango da jarraipen zientifiko-teknikoko memorien ebaluazioak aldekoak izatea, aurkezteko eskatu bada.

#### 15. artikulua.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

1.– Dirulaguntza emateko kontuan hartutako edozein baldintza aldatzen bada –betiere laguntzaren xedea betetzen dela ulertzen bada–, eta beste edozein erakunde publiko zein pribatutatik beste dirulaguntzaren bat jasotzen bada aldi berean, laguntzaren zenbatekoa aldatu ahal izango da. Ondore horietarako, laguntza kudeatzen duen organoak izango du zenbatekoa murrizteko espedientea hasteko eta izapidetzeko eskumena, eta Osasuneko sailburuordeak, aldiz, horren gaineko ebazpena ematekoa.

2.– Proiektuaren garapen-prozesuan, gastu jakin batzuetara bideraturiko zenbateko partzial batzuetan aldaketak egitea beharrezko iritziz gero –betiere, laguntzaren guztizkoa gainditu gabe–, alde zurretik, proiektuko ikertzaile nagusiak idatziz egin beharko du eskabidea, horretarako arrazoiak emanez, eta erakunde onuradunaren legezko arduradunaren oniritziarekin.

Laguntza kudeatzen duen organoari egingo zaio eskabidea.

3.– Proiektuaren amaiera atzeratzen bada erakunde onuradunaren borondatearekin zerikusirik ez duten eta behar bezala justifikatzen diren arrazoiengatik, eta hasiera batean proiektua garatzeko ezarritako epea bukatu baino lehen idatziz eskatzen bada –zenbateko luzapena eskatzen den zehaztuta–, Osasuneko sailburuordeak proiektua amaitzeko epea luzatu ahal izango du.

Deialdi honen ondoretarako, laguntza-eskabidean aurreikusitako kontzeptuekiko gastu-desbi-deratzeak ez dira aldaketatzat jotzen, baldin eta % 20 gainditzen ez badute.

## 16. artikulua.– Ez-betetzeak eta dirua itzultzea.

1.– Betebeharrak betetzen ez dituen erakunde onuradunak eman zaion laguntza jasotzeko eskubidea galduko du. Eskubide hori galdu dela deklaratzeko berekin dakar jasotako zenbatekoak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzultzeko betebeharra, bai eta sortutako berandutze-interesak ere, ordainketa egin zen unetik laguntza itzuli beharra erabakitzen den egunera artekoak.

2.– Agindu honen 12. artikuluan adierazten den edozein betebeharrak bete ezean, jasotako laguntza itzuli beharko da. Artikulu horretan aurreikusi gabeko gaietan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 53.1 eta 53.2 artikuluetan xedatzen diren itzulketa-arrazoiak aplikatuko dira, bai eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37.1 artikuluko arrazoiak ere –azken hori Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 91., 92. eta 93. artikuluen bidez garatzen da–.

3.– Agindu honen 5. artikuluan ezarritakoaren arabera, kasu honetan ere itzuli beharko da dirulaguntza: emandako zenbatekoa, bakarrik zein beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektuaren kostua baino handiagoa bada. Kasu horretan, aipatutako kostuaz gaindi jasotako zenbatekoa gehi dagozkion berandutze-interesak bakarrik itzuli beharko dira.

4.– Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero (15. artikuluan zerrendatzen dira), laguntzaren parte bat itzuli beharko du erakunde onuradunak; betiere, jarduera osorik gauzatu ez arren, nabarmen hurbildu bada helburu horretara, eta egiaztatzen badu bere konpromisoak betetzen irmo ahalegindu dela. Baldintzetan egindako aldaketak ez dira inola ere onartuko, egindako jarduera bat ez badator deialdiaren 1. artikuluan adierazitako xedearekin, ez eta proiektuaren beraren xedea betetzen ez badu ere.

Halakorik gertatuz gero, laguntzaren zenbatekoaz gaindi jasotako zenbatekoa itzuli beharko da, laguntzaren aldaketa-ebazpenaren arabera. Eskabideak balioesteko deialdiko 10. artikuluan jasotzen diren irizpideei jarraituz bideratuko da ebazpen hori.

5.– Osasuneko sailburuordearen bitartez hasi eta burutuko da itzulketa-prozedura, beharrezkoak diren prozesuak izapidetu eta gero. Prozedura abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren arabera izapidetuko da. Horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermea eta itzulketak arautu, eta kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen betekizunak, araubidea eta eginbeharrak ezartzen dira.

## 17. artikulua.– Datu pertsonalak.

Datu pertsonalak babesteko araudian xedatuta dagoenaren ondoreetarako (2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoen babesari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta zirkulazio askeari dagokienez, zeinaren bidez indargabetzen baitira 95/46/EE Zuzentaraua eta Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa), deialdi honetan adierazitako datu pertsonalak tratatuko ditu Bioef – Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Eusko Fundazioak:

1.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean jasotako legezko betebeharraren arabera tratatuko dira, dirulaguntza emateko edo, hala badagokio, baliatzeko betekizunak, baldintzak eta helburua betetzen direla egiaztatzeko.

2.– Datu pertsonalak tratatzeko arrazoia da proiektuak deialdi honen oinarrien arabera balioetsi, kudeatu, administratu eta kontrolatzea.

3.– Datu pertsonalak deialdiaren indarraldian eta, hala badagokio, proiektua gauzatzen amaitu arte tratatuko dira. Behin amaituta, lege ezarritako epeetan baino ez dira mantenduko.

4.– Datuak babesteko ordezkaria. Bioefek Datuak Babesteko ordezkari bat du, araudia betez, eta helbide honen bidez jo daiteke harengana: [dpd@bioef.eus](mailto:dpd@bioef.eus)

5.– Kontrol-agintaritzaren aurrean erreklamazioa aurkezteko aukera: Erreklamazioa aurkeztu ahal izango da Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean (<https://www.avpd.euskadi.eus/s04-5213/eu/>), tratamendua indarreko legediaren aurkakotzat joz gero.

6.– Deialdian parte hartzen dutenek une oro jakin ahal izango dute Bioefek beraien zer datu pertsonal tratatzen dituen, araudiak ematen dizkion eskubideak erabiliz, helbide honetan: BIOEF - Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Eusko Fundazioa BEC dorrea (Bilbao Exhibition Centre) Azkue kalea 1, 48902 Barakaldo edo [dpd@bioef.eus](mailto:dpd@bioef.eus) helbidean. Bereziki, eskubide hauek erabil ditzakete:

a) Datuetan sartzeko eskubidea: interesdunek aukera dute tratatzen diren beren datu pertsonalei buruzko informazioa jakiteko eta lortzeko.

b) Datuak zuzentzeko eskubidea: akatsak zuzendu daitezke, edo zehatzak ez direnak aldatu eta gabetasunen bat dutenak osatu, tratatuko den informazioa egiazkoa dela bermatzeko.

c) Datuak ezabatzeko eskubidea: tratatzen diren datuak ezabatzeko eskatu daiteke, baldin eta jada beharrezkoak ez badira kontratua betetzeko.

d) Tratamenduari uko egiteko eskubidea: interesdunak eskubidea du bere datu pertsonalak ez tratatzeko, edo tratamendua eteteko, ez bada lege-arrazoiak edo balizko erreklamazioak egin eta horiez defendatzea daudela tartean. Kasu horietan, datuak blokeatuta edukiko ditugu, harik eta lege-beteki-zunen indarraldia amaitu arte.

e) Tratamendua mugatzeko eskubidea: inguruabar jakin batzuetan, interesdunek bere datuen tratamendua mugatzeko eskatu ahal izango dute. Kasu horretan, erreklamazioak egiteko edo horien aurrean defendatzeko bakarrik erabiliko dira datuok.

f) Erabaki indibidual automatizatuen xede ez izateko eskubidea (profilak egitea barne): interesdunek eskubidea dute tratamendu automatizaturen batean oinarritutako erabakirik ez hartzeko euren gainean, interesdunei nabarmen eragiten badiete.

g) Datuen eramangarritasun-eskubidea. Legez ezarritako egoeretan eta teknikoki posible bada.

## AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote Osasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute, zuzenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena aipatutako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

## AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honetan aipatutako dirulaguntza honako hauetan xedatutakoaren mende egongo da: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 3/2022 Legea, maiatzaren 12koa, Euskal Sektore Publikoarena; Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren VI. titulua eta VII. tituluaren III. kapitulua (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori); eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta azken horren erregelamendua onartzen duen 887/2006 Dekretuan jasotako oinarritzko araudia.

## AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 4a.

Osasuneko sailburua,  
MIREN GOTZONE SAGARDUI GOIKOETXEA.



## I. ERANSKINA

## ESKABIDEAREN MEMORIA

- Ikertzaile nagusiaren edo proiektuaren arduradunaren izena: egin klik edo sakatu testua idazteko.
- Zer deialditan hartuko den parte: egin klik edo sakatu testua idazteko.
- Proiektuaren izena: egin klik edo sakatu testua idazteko.
- Data: egin klik edo sakatu testua idazteko.
- Orri kopurua (azala barne): egin klik edo sakatu testua idazteko.

<b>IZENA.</b> Egin klik edo sakatu testua idazteko.
<b>IKERTZAILE NAGUSIA EDO PROIEKTUAREN ARDURADUNA.</b> Egin klik edo sakatu testua idazteko.
<b>IRAUPENA:</b> 1 urte <input type="checkbox"/> 2 urte <input type="checkbox"/> 3 urte <input type="checkbox"/>
<b>LABURPENA</b> (Proiektuaren helburuak eta metodologia) (gehienez 250 hitz) Egin klik edo sakatu testua idazteko.
<b>TITLE.</b> Egin klik edo sakatu testua idazteko.
<b>SUMMARY</b> (Objectives and methodology): Egin klik edo sakatu testua idazteko.

**Gaiaren aurrekariak eta oraingo egoera** (3 orri gehienez)

Egin klik edo sakatu testua idazteko.

**Bibliografia** behinena (1 orri gehienez)

Egin klik edo sakatu testua idazteko.

**Hipotesia:**

Egin klik edo sakatu testua idazteko.

**Helburuak:**

Egin klik edo sakatu testua idazteko.

**Metodologia** (diseinua, aztergaiak, aldagaiak, datuen analisia eta ikerketaren mugak) (3 orri gehienez)  
Egin klik edo sakatu testua idazteko.

**Lan-plana** (lantalde osoaren zereginak garatzeko eta banatzeko etapak, eskatzen diren lan-gileentzat aurreikusitako esleipenak barne; bekadunak badira, aurreikusitako prestakuntza-plana zehaztu. Adierazi proiektua non egingo den) (orri 1 gehienez)  
Egin klik edo sakatu testua idazteko.

**Ikerketa-taldeak gaien daukan esperientzia** (orri 1 gehienez)  
Egin klik edo sakatu testua idazteko.

**Jendarteratze-plana:**

1.– Proiektuaren garrantzia eragin klinikoari, asistentzialari edo garapen teknologikoari dagokienez.

2.– Proiektuaren garrantzia eragin bibliometrikoari dagokionez

Egin klik edo sakatu testua idazteko.

Proiektua gauzatzeko **eskuragarri dauden baliabideak**

Egin klik edo sakatu testua idazteko.

**Eskatutako laguntzaren justifikazio zehatza** (orri 1 gehienez)

Egin klik edo sakatu testua idazteko.



2022ko urriaren 20a, osteguna

ESKATUTAKO AURREKONTUA (urteka banakatuta)				
<b>1.– Langile-gastuak</b>	<b>1. urtea</b>	<b>2. urtea</b>	<b>3. urtea</b>	<b>guztira</b>
Egin klik edo sakatu testua idazteko.	Egin klik edo sakatu testua idazteko.	Egin klik edo sakatu testua idazteko.	Egin klik edo sakatu testua idazteko.	Egin klik edo sakatu testua idazteko.
GUZTIZKO PARTZIALA	Egin klik edo sakatu testua idazteko.	Egin klik edo sakatu testua idazteko.	Egin klik edo sakatu testua idazteko.	Egin klik edo sakatu testua idazteko.
<b>2.– Gauzatze-gastuak</b>	<b>1. urtea</b>	<b>2. urtea</b>	<b>3. urtea</b>	<b>guztira</b>
<b>a) Ondasunak erostea eta zerbitzuak kontratatzea (inbentariagarria, suntsikorra eta beste gastu batzuk)</b>	Egin klik edo sakatu testua idazteko.	Egin klik edo sakatu testua idazteko.	Egin klik edo sakatu testua idazteko.	Egin klik edo sakatu testua idazteko.
Egin klik edo sakatu testua idazteko.	Egin klik edo sakatu testua idazteko.	Egin klik edo sakatu testua idazteko.	Egin klik edo sakatu testua idazteko.	Egin klik edo sakatu testua idazteko.
GUZTIZKO PARTZIALA	Egin klik edo sakatu testua idazteko.	Egin klik edo sakatu testua idazteko.	Egin klik edo sakatu testua idazteko.	Egin klik edo sakatu testua idazteko.
<b>b) Bidaiak eta dietak</b>	<b>1. urtea</b>	<b>2. urtea</b>	<b>3. urtea</b>	<b>guztira</b>
Egin klik edo sakatu testua idazteko.	Egin klik edo sakatu testua idazteko.	Egin klik edo sakatu testua idazteko.	Egin klik edo sakatu testua idazteko.	Egin klik edo sakatu testua idazteko.
GUZTIZKO PARTZIALA	Egin klik edo sakatu testua idazteko.	Egin klik edo sakatu testua idazteko.	Egin klik edo sakatu testua idazteko.	Egin klik edo sakatu testua idazteko.
<b>3.– Zeharkako kostuak</b>	<b>1. urtea</b>	<b>2. urtea</b>	<b>3. urtea</b>	<b>guztira</b>
Egin klik edo sakatu testua idazteko.	Egin klik edo sakatu testua idazteko.	Egin klik edo sakatu testua idazteko.	Egin klik edo sakatu testua idazteko.	Egin klik edo sakatu testua idazteko.
<b>ESKATUTAKO LAGUNTZA, GUZTIRA</b>	Egin klik edo sakatu testua idazteko.	Egin klik edo sakatu testua idazteko.	Egin klik edo sakatu testua idazteko.	Egin klik edo sakatu testua idazteko.

**ERANSKINAK**

Egin klik edo sakatu testua idazteko.

2022ko urriaren 20a, osteguna

## I-A ERANSKINA

## ERAKUNDE ESKATZAILEAREN IKERKETA-TALDEA

<b>PROIEKTUAREN IZENA</b>	
<b>ESPEDIENTE-ZENBAKIA (BIOEFek betetzeko)</b>	

Erakunde eskatzailea			
Guzatze-zentroa (erakunde eskatzailearena ez bada)			
Izena	NANa	Lanpostua	Titulazioa

**Ikertzaile nagusiaren sinadura**

--

Datu pertsonalak babesteko araudian ezarritakoaren ondoreetarako (2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, apirilaren 27koa, «Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra» edo «DBEO»), BIOEF - Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Eusko Fundazioak tratatuko ditu deialdi honetan emandako datu pertsonalak:

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean jasotako legezko betebeharraren arabera tratatuko dira, dirulaguntza emateko edo, hala badagokio, baliatzeko betekizunak, baldintzak eta helburua betetzen direla egiaztatzeko.

Datu pertsonalak tratatzeko arrazoia da proiektuak deialdiko oinarrien arabera balioetsi, kudeatu, administratu eta kontrolatzea, eta BIOEFi agindutako helburuak betetzea.

Datu pertsonalak deialdiaren indarraldian eta, hala badagokio, proiektua gauzaten amaitu arte tratatuko dira. Behin amaituta, lege ezarritako epeetan baino ez dira mantenduko.

BIOEFek Datuak Babesteko ordezkari bat du, araudia betez, eta helbide honen bidez jo daiteke haren gana: [dpd@bioef.org](mailto:dpd@bioef.org)

Kontrol-agintaritzaren aurrean erreklamazioa aurkezteko aukera: erreklamazioa aurkeztu ahal izango da Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean (<https://www.avpd.euskadi.eus/s04-5213/eu/>), tratamendua indarreko legediaren aurkakotzat joz gero.

Deialdian parte hartzen dutenek une oro jakin ahal izango dute BIOEFek beraien zer datu pertsonal tratatzen dituen, araudiak ematen dizkion eskubideak erabiliz, helbide honetan: BIOEF - Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Eusko Fundazioa BEC dorrea (Bilbao Exhibition Centre) Azkue kalea 1, 48902 Barakaldo. Bereziki, eskubide hauek erabil ditzakete:

Datuetan sartzeko eskubidea: interesdunek aukera dute tratatzen diren beren datu pertsonalei buruzko informazioa jakiteko eta lortzeko.

Datuak zuzentzeko eskubidea: akatsak zuzendu daitezke, edo zehatzak ez direnak aldatu eta gabetasunen bat dutenak osatu, tratatuko den informazioa egiazkoa dela bermatzeko.

Datuak ezabatzeko eskubidea: tratatzen diren datuak ezabatzeko eskatu daiteke, baldin eta jada beharrezkoak ez badira kontratua betetzeko.

Interesdunak eskubidea du bere datu pertsonalak ez tratatzeko, edo tratamendua eteteko, ez bada lege-arrazoiak edo balizko erreklamazioak egin eta horiez defendatzea daudela tartean. Kasu horietan, datuak blokeatuta edukiko ditugu, harik eta lege-betekizunen indarraldia amaitu arte.

Tratamendua mugatzeko eskubidea: inguruabar jakin batzuetan, interesdunek bere datuen tratamendua mugatzeko eskatu ahal izango dute. Kasu horretan, erreklamazioak egiteko edo horien aurrean defendatzeko bakarrik erabiliko dira datuok.

Erabaki indibidual automatizatuaren xede ez izateko eskubidea (profilak egitea barne): interesdunek eskubidea dute tratamendu automatizatuaren batean oinarritutako erabakirik ez hartzeko euren gainean, interesdunei nabarmen eragiten badiete.

Datuen eramangarritasun-eskubidea. Legez ezarritako egoeretan eta teknikoki posible bada.

2022ko urriaren 20a, osteguna

## I-B ERANSKINA


## ERAKUNDE ESKATZAILEAREN MEMORIA EKONOMIKOA

<b>PROIEKTUAREN IZENA</b>	
<b>ESPEDIENTE-ZENBAKIA (BIOEFek betetzeko)</b>	

<b>Erakunde eskatzailearen datuak</b>	
<b>Erakunde eskatzailearen izena</b>	
<b>Zehaztu erakunde koordinatzailea edo parte-hartzailea den</b>	

<b>Aurrekontua eta erakunde eskatzaileak eskatutako laguntza</b>
--

<b>Gastu-kontzeptua</b>	<b>1. urtea</b>	<b>2. urtea</b>	<b>3. urtea</b>	<b>GUZTIRA</b>
Langileak				
Ondasunak eta zerbitzuak				
Bidaiak eta dietak				
Zeharkako gastuak				
<b>GUZTIRA</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>



**Sinatua: Erakunde eskatzailearen legezko  
ordezkaria**



berrikuntza + ikerketa + osasuna eusko fundazioa  
fundación vasca de innovación e investigación sanitarias

## II. ERANSKINA

### HISTORIAREN MEMORIA ZIENTIFIKO-TEKNIKO NORMALIZATUA



## IKERKETA TALDEAREN AZKEN BOST URTEETAKO HISTORIA ZIENTIFIKO-TEKNIKOA

Adierazi ikerketa-taldeko kideak, taldeak garatutako ikerketa-proiektuak, argitalpenak, finantzatutako proiektuak, lankidetzak, patenteak eta interesgarria izan daitekeen beste edozein alderdi, azken 5 urteetan.

Egin klik edo sakatu testua idazteko.

2022ko urriaren 20a, osteguna

## III. ERANSKINA

## ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Nik, ....., ..... erakundearen legezko ordezkari gisa (IFZ: .....),

## ADIERAZTEN DUT:

eragile horrek bete egiten ditu BIOEF - Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Eusko Fundazioaren Alzheimer-en gaixotasunari buruzko ikerketa-proiektuetarako laguntza-deialdiaren Aginduaren 2. eta 6. artikuluetan ezarritako betekizunak eta baldintzak (2022ko ..... (a)ren ..... (e)ko EHAA, ..... zk.), eta ez dauka agindu horretako laguntzak eskuratzea eragozten dion inolako inguruabarrik. Horrenbestez, espresuki adierazten du hau:

- Egunean dauzka zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
- Egunean dauzka dirulaguntzen itzulketaren ziozko betebeharrak.
- Ez zaio ezarri Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluan xedatutako debekurik.
- Ez dauka administrazio- edo zigor-zehapenik, dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera kentzen dionik, eta ez dauka laguntza horiek jasotzeko legezko debekurik.
- Deialdian ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa dauka.
- Dokumentazio hori deialdia egin duen erakundearen esku jarriko du, hark hala eskatzen duenean.
- Agindu honen xede diren laguntzak indarrean dauden bitartean aurrekoak betetzen jarraitzeko konpromisoa hartzen du.
- Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearen bigarren aldatutako buruzko martxoaren 3ko 1/2022 Legearen azken xedapenetako laugarrenean ezarritako betebeharrak betetzen ditu. Lege horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren (EAEONALTB) 50. artikuluan 5. apartatua aldatu du.

Halaber, eragilea itzulketa- edo zehapen-prozeduraren baten pean badago, hau da, eragilea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, haren erakunde autonomoek eta Zuzenbide pribatuko erakunde publikoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den edo amaituta dagoen itzulketa- edo zehapen-prozeduraren baten pean badago, adierazi zein diren prozedura horiek.

.....(e)n, 2022ko ..... aren ..... (e)(a)n

(Legezko ordezkariaren sinadura eta erakundearen zigilua)

Sin:



2022ko urriaren 20a, osteguna

## IV. ERANSKINA

## MEMORIA ZIENTIFIKOA

(□ URTEKOA / □ AMAIERAKOA)

ESPEDIENTEA:	EMANDAKO ZENBATEKOA:
IZENA:	
GAKO-HITZAK:	
IKERTZAILE NAGUSIA EDO PROIEKTUAREN ARDURADUNA:	
ERAKUNDEA:	IRAUPENA:
ZUZENDARITZA:	
AUTONOMIA-ERKIDEGOA:	TELEFONOA:
Aurrezenbakia Luzapena	
LABURPENA: (helburua, diseinua, azterketa-eremua, aztergaia, instrumentalizazioa, emaitzak, ondorioak)	
TITLE:	
KEYWORDS:	
SUMMARY: (Study Objective, Desing, Setting, Patients, Interventions, Results, Conclusions)	

2022ko urriaren 20a, osteguna

<p><b>EKINTZAREN ONDORIOZKO ARGITALPENAK</b> (Bakoitzetik, separata bana atxikiko da) Adierazi: argitalpen kopurua (Vancouver aipamen- eta laburpen-ereduaren arabera deskribatuta); egindako jendarteratze-jarduerak, bai eta lortutako sariak eta aintzatespenak ere.</p>
<p><b>METODOLOGIA-ALDAKETAK</b> ETA LAN-PLANARENAK, PROIEKTUAREN ALDEAN</p>
<p><b>EZARRITAKO HELBURUAK</b> (jatorrizko proiektuarenak transkribatuta)</p>
<p><b>LORTUTAKO HELBURU ZEHATZAK</b> (ezarritakoak bezala ordenatuta) Adierazi: helburuen betetze-maila; helburuekiko desbideratzea; hasieran proposatutako egutegiaren betetze-maila; eta aurrekontuaren betearazpen-maila.</p>
<p><b>EMAITZEN APLIKAGARRITASUN ETA ERABILGARRITASUN PRAKTIKOA</b> OSASUNAREN ARLOAN Adierazi proiektuaren aplikagarritasuna eta inpaktua maila klinikoan, asistentzian edo garapen teknologikoan; adierazi proiektuak dakarren berrikuntza-maila.</p>
<p><b>EMAITZAK:</b> PATENTEAK EDO PROIEKTUAREN ONDORIOZ KOMERTZIALKI USTIATU DAITEZKEEN BESTE EMAITZA BATZUK, BAITA LORTUTAKO PRODUKTUAK ERE. Adierazi lortutako emaitzak, hala nola patenteak, jabetza intelektualaren emaitzak, enpresen sorrera, sortutako lankidetzak, funts berriak eta lortutako produktuak. Lortutako produktuak kategoria hauen barruan sartzen dira: bioteknologia eta diagnostiko molekularra; irudia; asistentzia- eta antolamendu-berrikuntza; materialak eta gailuak; sendagaiak; IKTak; etab.</p>
<p>JAKINARAZI NAHI DIREN BESTELAKO OHARRAK</p>
<p>.....(e)n, .....(e)ko .....aren .....(e)(a)n PROIEKTUAREN ARDURADUNA</p>

2022ko urriaren 20a, osteguna

V. ERANSKINA  
MEMORIA EKONOMIKOA  
GAUZATZE-GASTUAK

Espediente- zenbakia	Faktura- zenbakia	Gastu- kontzeptua	Hornitzailea	Fakturaren data	Ordainketaren data	Zerga- oinarria	Zerga- tasa	Zenbatekoa, guztira	Zenbateko egotzia
<b>LANGILE GASTUEN GUZTIZKO PARTZIALA</b>									
<b>ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN GUZTIZKO PARTZIALA</b>									
<b>BIDAIEN ETA DIETEN GUZTIZKO PARTZIALA</b>									

Sin.:

\* Zentro onuradunaren legezko ordezkaria

\* Zentro onuradunaren legezko ordezkariak azaldu du adierazitako gauzatze-gastuen jatorrizko fakturak bere esku daudela, eta laguntza kudeatzen duen organoak egin ditzakeen egiaztapen-jarduketan eskura daudela.